



## **Jardunaldi Teknologikoa: nola ustiatu BIG DATA negozio aukera berriak sortzeko**

- *Datuen erabilpenari eta ustiapenari dagokionez Big Datak aro berri bat suposatzen du eta jardunaldi hau Big Data teknologia bere negozioan nola erabili dezaketen jakin nahi duten enpresei zuzendua egon da.*
- *Jardunaldi hau "Gipuzkoa Teknologikoa"ren hamahirugarren edizioan barneratzen da.*
- *Hitzaldiak Miramongo Parke Teknologikoan egin dira eta 200 pertsona baino gehiago bildu dira bertan.*

**Donostia, 2015eko ekainaren 9an.** Gipuzkoako Bazkondeak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak, SPRIK eta Miramon Enpresa Digitalak jardunaldi dibulgatzaile bat antolatu dute **"Nola ustiatu dezaket BIG DATA negozio aukera berriak sortzeko nere sektorean?"** izenburupean. Jardunaldia gaur, asteartea, burutu da Donostiako Miramongo Parke Teknologikoko Auditorioan.

Jardunaldia "Gipuzkoa Teknologikoa"ren hamahirugarren edizioan barneratzen da eta teknologia hau bere negozioan nola aprobeztatu dezaketen jakin nahi duten profesionaleri eta enpresei zuzendua egon da.

Gaur egun, sortzen diren datuen kopurua oso handia da eta kasuistika korapilatsukoa. "Datuen kultura" honek ohikoak baino azterlan eredu aurreratuagoak eskatzen ditu, horregatik BIG DATA gertakaria enpresentzat lehentasun estrategiko bihurtu da.

BIG DATAk datuen erabilpenaren eta ustiapenaren inguruan aro berri bat suposatzen du. Bidezko enpresa datuen tratamendu masiboak eta analitikoak, produktu berriak sortzeko aukera handiagotu egiten du eta bere negozioaren portaera hobeto ezagutzen laguntzen du, baita salmenta gurutzatuak optimizatu, bezeroaren ikuspegi osoa izan, negozio aukerak atzeman, bezeroan oinarritutako emaitzak lortu, likidezaren arriskua kudeatu edo informazioaren ekosistemak hobetzen ere. Horrela, datu horien bidez balioa aztertu eta sortzeko gai diren enpresak, lehiakortasun abantaila garrantzitsua lortuko dute, beren enpresen, produktuen eta bezeroen ezagutza hobetuz.

Teknologia berria izanik, oraindik bidea egiteko dago, eta "Nola ustiatu dezaket BIG DATA negozio aukera berriak sortzeko nere sektorean?" jardunaldia bertaratu diren guztiak honetara hurbiltzen saiatu da, enpresa handi edo korporazioentzat soilik ez den teknologia hau aztertzen saiatu da hain zuzen ere.

## Gipuzkoa Teknologikoa

"Gipuzkoa Teknologikoa" programa 2003an sortu zen. Gipuzkoako Bazkondeak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin batera urtero bi jardunaldi antolatzen ditu. Jardunaldi hauetan informazioaren eta komunikabideen teknologien erabilpenarekin erlazioa duten gai ezberdinak jorratzen dira: interneten segurtasuna, tresna hauek negozio katea hobetzeko eskaintzen dituzten aukerak, 2.0 Webak, sare sozialak, mugikortasuna, online marketinga...

## Hizlari aipagarriak

Aurreikuspenak zioten moduan 200 pertsona baino gehiago bildu dira Miramongo Parke Teknologikoan egin diren hitzaldiak entzutera. Hitzaldiak BIG DATA gaiaren inguruan adituak diren pertsonak egin dituzte, horien artean **Carmen Artigas**, Synergic Partners-eko bazkide sortzailea. Aholkularitza hau 2007an sortu zen eta estrategia eta teknologia datuen kudeaketan eta azterketetan espezializatuta dago, Big Data eta Data Analyticsen ezartzen du bere ezagutza. **Mikel Niño** bestalde, Startups TICeko aholkularia da eta Big Data Analyticsen eta Ekintzaitza Digitalaren ikertzailea. Gaur egun Big Data Analyticsen eta Ekintzaitza Digitalaren inguruko doktoradutza tesia egiten ari da Euskal Herriko Unibertsitatean. **Ricardo Míguez** azkenik, IBM Colaboration Solutionseko zuzendaria da eta baita Espainiako, Portugalko, Greciako eta Israelgo IBMeko Business Analytics markaren arduradun.

## Egitaraua

<b>9:00 – 9:15</b>	<b>Hasiera</b>
<b>9:15 – 9:45</b>	<b>Big data ulertuz: teknologiatik negozioara</b> <b>Mikel Niño</b> (Euskal Herriko Unibertsitatea)
<b>9:45 – 10:15</b>	<b>Industria: datasetera bidea</b> <b>Fernando Sáenz</b> , Gerente (Cyril Data Systems)
<b>10:15 – 10:45</b>	<b>Elkarreragintasanaren rola Big Datan, datuen iturri guztiak ez baitira berdinak</b> <b>Marta González</b> , Semantics Manager (Tecnalia)
<b>10.45 -11:15</b>	<b>Big Data eta turismoa</b> <b>Aurkene Alzua</b> , Executive Director (CICTOURGUNE)

## KAFERAKO ATSEDENA

<b>11:45 – 12:15</b>	<b>Datuen iraultza, Teknologia kognitibo analitiko eta rol berriak</b> <b>Ricardo Míguez, Director Business Analytics (IBM)</b>
<b>12:15 – 12:45</b>	<b>Big Datarekin negoziatorako konponbideak</b> <b>Carme Artigas, Co-founder (Synergic Partners)</b>
<b>12:45 – 13:15</b>	<b>Business Intelligencetik Big Datara</b> <b>Eva Mirás, Directora comercial (I68)</b>
<b>13:15 - 13:45</b>	<b>Ecommerce-en Big Dataren erronkak</b> <b>Francisco Carrero, Co-fundador (Brainsins)</b>

### Laguntzaileak



### Antolatzaileak



**Informazio gehiago nahi izanez gero:**

Irune Bengoetxea

[ibengoetxea@camaragipuzkoa.com](mailto:ibengoetxea@camaragipuzkoa.com)

943 000 310 / 688884347